



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

2024ko ABENDUAREN 17an EGINIKO OHIKO BILKURAREN AKTA

Asteasuko Udaletxeko Pleno Aretoan, 2024ko abenduaren 17an, arratsaldeko 19.30etan, Maria Pilar Legarra Cortajarena Alkate anderearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren Zinegotziak bildu ziren:

ALKATE ANDREA: Maria Pilar Legarra Cortajarena (Asteasu Batuz, AB)

ZINEGOTZIAK: Larraitz ALKORTA AIZPURUA (Asteasu Batuz, AB)
Pedro Maria IZAGIRRE SARASOLA (Asteasu Batuz, AB)
Amaia AGIRRE ARRASTOA (Asteasu Batuz, AB)
Iosu OMEÑACA ALCORTA (Asteasu Batuz, AB)
Aitziber EGAÑA CALLEJO (EAJ/PNV)

BITARTEKO IDAZKARIA: Jon Gil Beltza.

Ezin direla etorri aurretik adierazi dute: Xabier ROTETA ERKIZIA (Asteasu Batuz, AB),
Aitor USANDIZAGA IZAGUIRRE (Asteasu Batuz, AB)

Alkate andreak, goian adierazitako orduan, irekiztat ematen du Udal Osoko Bilkura:

GAI ZERREDA:

1. Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- **2024.10.29ko Udalbatzarraren akta.**

2. Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- **2024.urtekoak (285-323)**

3. 2025eko Udal aurrekontu Orokorrak eta Asteasuko Udaleko 2024-2026 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa I. ALDAKETA: hasierako onspena

4. Asteasuko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2024-2027: onspena

5. Hitzarmenak 2021/06: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Asteasuko Udalaren arteko hitzarmena, Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko: luzapena

6. Mozioak:

SINA94b6ccb6f-210f-44d7-94aa-668a53bec18e

- 2024/09: Euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa.

7. Erregu eta galderak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

Aurreko Udalbatzarren aktak onartzea:

- 2024.10.29ko Udalbatzarraren akta.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien ahobatezko onespenerekin, aipatu akta onartu du.

BIGARREN PUNTUA

Azkeneko ohiko Udalbatzarretik igorritako Alkatetza ebazpenen berri eman:

- 2024.urtekoak (285-323)

Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARREN PUNTUA

2025eko Udal aurrekontu Orokorrak eta Asteasuko Udaleko 2024-2026 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa I. ALDAKETA: hasierako onespena

Udaleko aurrekontuaren zirriborroa aurkeztu ondoren, ASTEASU BATUZ Udal taldeak 2024/11/25ean eta EAJ-PNV Udal Taldeak 2024/11/26an aurkeztutako idatzien bidez, 2025ko udal aurrekontuetarako proposamenak aurkeztu zituzten; horiek 2024/12/03ko Ogasuna, Kontu Bereziak eta Administrazioa Informazio-Batzordean aztertu ziren.

Gauzak horrela, 2025eko Udal aurrekontuaren proiektua burutu zen aipatu Informazio-Batzordean, emendakin hauekin:

II. Kapitulan:

- 226.330.01.06 Gazteria arloko iharduerak... Soka gazteei zuzendutako ekintzak: 15.000,00€.
- 227.929.00.07 Azterketa eta lan teknikoak (Tolosako setioa eta Belabietako bataia): 1.000,00€

IV kapitulan:

- GAZArako laguntza: 4.157,00€ (*Xedea eta Onuraduna Udal Osoan zehazteke*)
- 481.330.00.09 Telebista 28 kanala: 1.500,00€
- 481.340.00.04 Kukute Guraso elkartearen kanpaina: 800,00€

VI kapitulan:

- Kultur etxea: eraisketa eta eraikuntza: 58.000,00€
- Lorategietako belarra mozteko makina: 3.000,00€
- Kaldera igerilekurako: 4.500,00€
- Mahaiak, bailak...: 3.800,00€
- Lamiategi Berriko aparkalekuaren asfaltatzea, e.a.: 20.000,00€
- Sta Marina Ermitako teilatua: 20.000,00€
- Sta Kruz Ermitako teilatua: 20.000,00€
- Frontoiaren atzeko atea: 3.000,00€
- 601.153.00.02 Herri Bideak: 49.290,00€.

Bi Udal taldeek emendakin berri hauek aurkeztu dituzte::

EAJ-PNV-k aurkeztutakoak:

IV kapituluari:

- GAZArako laguntza: 4.157,00€

Helburuak: Lurralde Palestinar Okupatuatarako eta herrialde mugakideatarako eskualde-funtsa: Gazako gatazka.

Lortu nahi diren helburuak: Lehen mailako arretako klinikei, kanpo-kontsultei eta klinika mugikorrei arreta emateko misio medikoak, hornidura mediko eta sendagaiekin, premia larriko ondasunekin, higiene pertsonaleko produktuekin, edateko urarekin eta ekipamendu medikoari lotutako instalazioak mantentzeko gasolinarekin.

Onuraduna: Médicos Sin Fronteras-España

Enmendakina bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Onartu da.

ASTEASU BATUZ-ek aurkeztutakoak:

Zuzenketa VI kapituluari:

- Sta Kruz Ermitako teilatua: 20.000,00€ ordez:
Sta Kruz Ermita ondoko lokalaren teilatua: 20.000,00€

Enmendakina bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Onartu da.

Gauzak horrela, 2025eko Udal aurrekontuaren proiektua egin da, onartutako emendakinekin.

2025ko Udal Aurrekontu Orokorren proiektuarekin batera, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda, eta Diru-laguntzak emateko 2024-2026 Plan Estrategikoaren I. aldaketa izapidetuko dira.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bi Udal taldeek eginiko proposamenak eztabaidatu ondoren, 2025eko Udal aurrekontuaren proiektua egin da.

Proiektuaren proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 5 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 1 (Egaña)

Beraz, Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

Lehena. 2025eko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda eta Diru-laguntzak emateko 2024-2026 Plan Estrategikoaren I. aldaketa hasierako izaeraz onartzea, kapitulukako laburpen honen arabera:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	737.150,00
2	Zeharkako zergak	40.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	488.800,00
4	Transferentzia arruntak	1.426.600,00
5	Ondare sarrerak	50,00
6	Inbertsio errealak besterenganatzea	0,00
7	Kapital transferentziak	35.000,00
8	Finantza aktiboak	0,00
9	Finantza pasiboak	0,00

GUZTIRA: 2.727.600,00

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Langileria gastuak	794.300,00
2	Ond. arrunten eta zerbitzuen gastuak	1.319.000,00
3	Finantza gastuak	2.000,00
4	Transferentzia arruntak	390.585,00
5	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	00,00

6	Inbertsio errealak	198.590,00
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Finantza aktiboak	0,00
9	Finantza pasiboak	23.125,00

GUZTIRA: 2.727.600,00

Bigarrena. Iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian, eta iragarki taulan, jendaurrera azaltzeko hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote.

Epealdi horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, 2025eko Udal Aurrekontu Orokorrak, Udal Aurrekontuak Gauzatzeko Arauak, Udaleko plantilla eta Lanpostu zerrenda eta Diru-laguntzak emateko 2024-2026 Plan Estrategikoaren I. aldaketa behin betiko onetsizat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

LAUGARREN PUNTUA

Asteasuko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2024-2027: onspena

I. Kultura, Euskara, Turismoa eta Hezkuntza Informazio Batzordeak, 2024ko azaroaren 12an eginiko bilkuran, irizpen hau eman du:

“Eranskin gisa doan ASTEASUKO UDALEAN EUSKAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (2024-2027)-ren ALDEKO IRIZPENA EMATEA”.

II. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan jasotakoaren arabera, **Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.** Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatetik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.

Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.

Udalerriek euskararen erabilerearen eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduera-planak onartuz.

Hala, aipatu 2/2016 Legearen 17.1.26) artikuluan jasotakoaren arabera, lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material honetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: **“Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera”**.

III. 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoak, Euskal Enplegu Publikoarenak, 187.2 artikuluan xedatzen duela herri erakundeek euskararen erabilera sustatzea:

“2.– Euskal administrazio publikoek saiatu behar dute beren zerbitzuko langileek hizkuntza-gaikuntza egokia izan dezaten eta euskara erabil dezaten euren jardueraren eremuan, eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte”.

Horrekin lotuta, 187.3 artikuluan zehazten da erakundeek hizkuntza-plangintzako tresna bat izatea:

“3.– Horretarako, euskal administrazio publikoek, haien mendeko instituzio eta organismoek, Eusko Jaurlaritzak berariaz ezarritako irizpideei jarraituz, hizkuntza-plangintzarako tresnak onartuko dituzte, bakoitzak berea, eta bertan finkatuko dituzte plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu behar diren neurriak eta jarri behar diren bideak”.

IV. 19/2024 Dekretuak, otsailaren 22koak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoak 5.artikuluan xedatzen duela sektore publikoko entitateek plan estrategiko bat eduki behar dutela euskararen erabilera normalizatzeko. Eta artikuluan berean xedatzen duela sektore publikoko entitateek Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak prestatu eta onartu behar dituztela.

Aipatu Dekretuaren 17.2 artikuluari segituz, plangintzaren lehen urtean onartu behar da plan estrategiko hori. Ordea, VII. plangintzaldian (2023-2023) ezinezkoa izan da hori betetzea, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak aldatu egin duelako plan estrategikoak egiteko eredu (Kemen metodologia), eta metodologia horretara egokitutako aplikazio informatikoa (Saregin) ez delako prest egon 2023 amaiera arte. Horrenbestez, 2024an onartu beharko da plan estrategiko berria.

V. 19/2024 Dekretuaren 9.2 artikuluari jarraikiz, entitate bakoitzak, plangintzaldi bakoitzaren hasieran, berrikusi egin behar ditu irizpide horiek, eta beharbada, egokitu.

Hain justu ere, VII. Plangintzaldiren diseinu testuinguru horretan, premiazkoa da Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak egokitzea, plan estrategikoarekin uztartzeko.

VI. Udalbatzak, 2022ko azaroaren 23ko bilkuran, beste gai batzuren artean, Asteasuko Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea erabaki zuen, eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak prestatzeko, aintzat hartu da Asteasuko Udalaren testuingurua eta urteotan egindako ibilbidea. Horretarako, hizkuntza-irizpideak modu bateratuan landu dira UEMArekin, Mankomunitateko udalen arteko koherentzia lortzeko asmoz.

VII. 19/2024 Dekretuaren 17.8 artikuluan xedatutakoa betetzeko, plana onartu aurretik txostena eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari.

Aipatu txostena 2024/11/28an helarazi zaio Udalari.

VIII. Une honetan, Asteasuko Udala prest dago aipatu plana onartzeko. Dena den, planean onartu eta argitaratu berri izan den Asteasuko Udaleko lanpostuen zerrenda berria txertatu egin da, izan ere, 19/2024 Dekretuaren 22 artikulua hau xedatzen baitu:

22. artikulua Hizkuntza-eskakizunak.

1-Hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua betetzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen gaitasun-mailen multzoa. Euskal sektore publikoko entitateetako lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du esleituta, eta eskakizun hori, derrigortasun-datarekin batera hala badagokio, nahitaez adierazi beharko da entitatearen lanpostu-zerrendan.

Lanpostu-zerrendetan edo, hala badagokio, enplegu publikoa antolatzeko tresna osagarrietan, bereizita jasoko dira, batetik, lanpostu bakoitzari esleitutako idazmena eta irakurmena trebetasunak, eta, bestetik, mintzamena eta entzumena trebetasuna

6--Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen-trebetasunetan gaitasun-maila bera behar denean, hizkuntza-eskakizuna simetrikoki adieraziko da, eskema honetako konbinazioen arabera:

<i>IDAZMENA</i>	<i>ETA</i>	<i>MINTZAMENA</i>	<i>ETA</i>
<i>IRAKURMENA</i>		<i>ENTZUMENA</i>	
<i>B1</i>		<i>B1</i>	
<i>B2</i>		<i>B2</i>	
<i>C1</i>		<i>C1</i>	
<i>C2</i>		<i>C2</i>	



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

7-Aldiz, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen-eta ulermen-trebetasunetan gaitasun-maila diferenteak behar direnean, hizkuntza-eskakizuna asimetrikoki adieraziko da, eskema honetako konbinazioen arabera:

IDAZMENA IRAKURMENA	ETA	MINTZAMENA ENTZUMENA	ETA
A2		B1	
A2		C1	
B1		B2	
B1		C1	

Lan Toki Administrazioaren Jardunbideari buruzko 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, bere 22.2.i) artikuluan eman dion ahalmenaz, Asteasuko Udalbatzarrak, 2023/12/26ko bilkuran, erabaki du, Asteasuko Udaleko lanpostuen zerrenda aldatzea, onartutako balorazioan jasotako ordainsarien zenbatekoa adieraziz eta sailkapen-talde / azpitaldeetarako esleitutako titulazioak zuzenduz.

Erabaki hori eta lanpostuen zerrenda 2024/10/17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu egin da.

IX. Tokiko Autonomiari buruzko Europar Gutunak 6.artikuluan, 7/1985 Legeak, tokiko araubidearen oinarriari buruzkoak, 4.1.a. artikuluan, eta 2/2016 Legeak, Euskadiko tokiko erakundeei buruzkoak, 2.5.artikuluan, Udalei aitortzen dizkiete beren burua antolatzeke ahalak.

X. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 4ko 7/1985 Legearen 21.1.s) artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetzari dagokio plan estrategikoak onartzeko eskumena.

Hala ere, UEMAko Koordinatzaileak proposatu du aipatu plana Udal Osoak onartu dezan, planaren izaera eta hedadura, eta Hizkuntza Irizpideen izaera eta hedadura ikusirik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 4ko 7/1985 Legearen 22.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Asteasuko Udalbatzak

ERABAKIA HARTU DU

LEHENA. Onestea Asteasuko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2024-2027.

BIGARRENA. Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateari.

HIRUGARRENA. Erabaki hau eta Asteasuko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2024-2027 argitaratzea Udaleko iragarki-taulan eta egoitza elektronikoan.

BOSGARREN PUNTUA

Hitzarmenak 2021/06: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Asteasuko Udalaren arteko hitzarmena, Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko: luzapena

Idazkariak hitza hartu du.

Azaroaren 28ko Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubidearen Erregelamendua onartzen duen 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan jasotakoarekin bat, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi behar du.

Alkate andreak hitza hartu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2024/12/12an aurkeztuta idazkiaren bidez (sarrera zbkia: 1193) Udalari helarazi dio Diputatuen Kontseiluak abenduaren 10ean hartutako Erabakia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal bakoitzaren artean etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko lankidetza hitzarmenaren ondorio ekonomikoak luzatzea onartzen duena. Era berean, eskatu du Udalak aipatu luzapena ahalik eta azkarren onartu egin beharko dela, 2024ko abenduaren 31 bidali beharko delarik eskatutako dokumentazioa eta agiriak. Gauzak horrela, ez da denbora izan aurretik gaia informazio-batzordean aztertu eta irizpena emateko.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: 6 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzarrak proposamena gai-zerrendan txertatzea berretsi du. Hau da proposamena:



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
ASTEASUKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENA, ETXeko LAGUNTZA
ZERBITZUA FINANTZATZEKO:
LUZAPENA**

**CONVENIO DE COLABORACION ENTRE
LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA Y
EL AYUNTAMIENTO DE ASTEASU PARA
LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE
AYUDA A DOMICILIO: PRÓRROGA**

I. Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

I. La ley del Parlamento Vasco 12/2008, de 5 de diciembre, de servicios sociales, ordena y estructura un sistema integrado de servicios sociales de responsabilidad pública, a fin de garantizar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el derecho subjetivo de toda la ciudadanía a dichos servicios.

II. Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

II. En el artículo 22.1 de la referida Ley se incluye el Servicio de Ayuda a Domicilio (SAD) dentro de los servicios sociales de atención primaria cuya provisión según lo dispuesto en el artículo 42.4 es competencia de los ayuntamientos.

III. Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

III. Si bien de acuerdo a la distribución competencial de la ley, la prestación de este servicio recae en el ámbito competencial municipal, mientras no se haga efectivo el reajuste financiero entre las administraciones públicas vascas previsto en la disposición transitoria tercera de la citada ley, la financiación del servicio a domicilio no puede ser asumida por el ayuntamiento en solitario. No al menos, sin que ello suponga, una disminución de los niveles de intensidad y cobertura, circunstancia que la citada disposición transitoria tercera proscribiera expresamente.

IV. Foru Diputatuen Kontseiluak, 2021/12/7ko bilkuran, onetsi du Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta mankomunitateekin sinatzeko hitzarmen eredia, zeinen helburua baita 2021-2023 aldian Etxetz Etxeko

IV. El consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada con fecha de 7/12/2021, aprobó el modelo de convenio a suscribir con los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa cuyo objeto

Laguntza Zerbitzua Foru Aldundiak finantzatzeko baldintzak zehaztea.

es definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a domicilio en el periodo 2021-2023.

V. Asteasuko Udal Osoak, 2022/02/22ko bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Asteasuko Udalaren artean sinatzeko hitzarmena onetsi zuen, zeinen helburua baita 2021-2023 aldian Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua Foru Aldundiak finantzatzeko baldintzak zehaztea.

V. El Pleno del Ayuntamiento de Asteasu, en sesión celebrada el 22/02/2022, aprobó el convenio a suscribir entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Asteasu, cuyo objeto es definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a domicilio en el periodo 2021-2023.

Azkenik, aipatu erakundeek hitzarmena sinatu zuten.

Finalmente, se formalizó el citado convenio entre ambas administraciones.

VI. Hitzarmen horien hamalagarren klausulan aurreikusitakoaren arabera, sinatzen ziren egunean indarrean jarri baziren ere, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituzten ondorio ekonomikoak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte egongo dira indarrean. Era berean, ezarri zen hitzarmenak amaitzen direnean berariaz luzatu ahal izango direla urte natural bateko aldietan, betiere aurrekontu-kontsignazio egokia eta nahikoa badago. Hitzarmenen eta haien luzapenen gehieneko iraupena ez da lau urtetik gorakoa izango, salbu eta arauz epe luzeagoa aurreikusten bada.

VI. De conformidad con lo previsto en la cláusula decimocuarta de los citados convenios, si bien entraron en vigor el día de su firma, surtieron efectos económicos desde el 1 de octubre de 2021 y su vigencia se extiende hasta el 31 de diciembre de 2023. Asimismo, se fijó que los convenios podrán ser prorrogados de forma expresa a su finalización por períodos de un año natural, siempre que existiera consignación presupuestaria adecuada y suficiente. La duración máxima de los convenios y sus prórrogas no podrá ser superior a cuatro años salvo que normativamente se previera un plazo superior.

VII. Asteasuko Udal Osoak, 2023/12/26ko bilkuran, onetsi zuen baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko formalizatutako hitzarmena urte natural batez luzatzeko, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

VII. El Pleno del Ayuntamiento de Asteasu, en sesión celebrada el 26/12/2023, aprobó autorizar la prórroga por un año natural, desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2024, del convenio formalizado por la Diputación Foral de Gipuzkoa con los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

VIII. Honaino iritsita, 2024 urterako adostutako hitzarmenen luzapenaren eta ondorio

VIII. Llegados a este punto, estando próxima la fecha de vencimiento de la prórroga y la



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

ekonomikoak zabaltzearen mugaeguna hurbil daudenez, bidezkoa da bederatzi hilabeteko luzapen berria onartzea, lau urteko hasierako gehieneko indarraldia agortu arte, alde sinatzaileek hura amaitu aurretik adostu ditzaketen luzapenei kalterik egin gabe, hitzarmenetan adierazi zen moduan:

“Hala ere, hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta hasierako lau urteko epea amaitu baino lehen adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.”

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan laguntza zerbitzua emateagatiko foru finantzaketaren urteko kostuak hitzarmenetan aurreikusitako izaten jarraitzen du. Bederatzi hilabeteko zabalpen berriari dagozkien ordainketak hiruhileko hiru likidaziotan ordainduko dira.

Ildo horretan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) 2. artikulua arabera, hitzarmenen luzapenari dagokionez, hitzarmenetan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute hitzarmenak beste lau urtez luzatzea.

Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2024/12/10ean egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu du: Onestea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko formalizatutako hitzarmenen bederatzi hilabeteko luzapena, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era.

extensión de efectos de los convenios acordada para el año 2024, procede aprobar una nueva prórroga de nueve meses, hasta agotar el plazo de vigencia máximo inicial de cuatro años, y sin perjuicio de las prórrogas que podrán acordar las partes firmantes antes de su finalización, de acuerdo con lo que se estableció en los convenios:

“No obstante, las partes firmantes del convenio podrán acordar unánimemente y antes de la finalización del plazo inicial de cuatro años, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción”.

El coste anual de la financiación foral por la prestación del servicio de ayuda a domicilio en los municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa continúa siendo el previsto en los convenios. Los abonos correspondientes a la nueva extensión de 9 meses se realizarán en tres liquidaciones trimestrales.

En este sentido, en virtud del artículo 49 h) 2º de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, en relación a la prórroga de los convenios, en cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en los mismos, los firmantes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de cuatro años adicionales.

Así, el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 10/12/2024, ha acordado autorizar la prórroga por un plazo de nueve meses, desde el 1 de enero al 30 de septiembre de 2025, de los convenios formalizados por la Diputación Foral de Gipuzkoa con los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Era berean, Asteasuko Udalaren interesekoa da bederatzi hilabeteko luzapena onartzea, lau urteko hasierako gehieneko indarraldia agortu arte.

IX. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Erakunde Erkideak eta toki-entitateak.

Hitzarmen horiek kanpoan geratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izango.

b) Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzeta bat ezartzea edo garatzea, bermatze aldera dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non amankomunean dituzten helburuak lortuko baitira.

c) Lankidetzaren garapenerako gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.

X. Asteasuko Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu du abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara (2019/07/10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Asimismo, interesa al Ayuntamiento de Asteasu aprobar la nueva prórroga de nueve meses, hasta agotar el plazo de vigencia máximo inicial de cuatro años.

IX. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados entre sí por la Administración General del Estado, las Comunidades Autónomas y las Entidades locales.

Su exclusión queda condicionada al cumplimiento de las siguientes condiciones:

a) Las entidades intervinientes no han de tener vocación de mercado.

b) Que el convenio establezca o desarrolle una cooperación entre las entidades participantes con la finalidad de garantizar que los servicios públicos que les incumben se prestan de modo que se logren los objetivos que tienen en común.

c) Que el desarrollo de la cooperación se guíe únicamente por consideraciones relacionadas con el interés público.

X. El Ayuntamiento de Asteasu, cuenta con Reglamento municipal regulador del servicio de Ayuda a Domicilio del Ayuntamiento de Asteasu (publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 10/07/2019), que se adecua a la distribución competencial de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Asteasuko Udaleko bitarteko idazkariak aldez aurreko txostena eta proposamena eman du. Previo informe-propuesta del Secretario Interino del Ayuntamiento de Asteasu.

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik: La propuesta se somete a votación con el siguiente resultado:

Aldeko botuak: (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña) Votos a favor: 6 (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)
Kontrako botuak: 0 Votos en contra: 0
Abstentzioak: 0 Abstenciones: 0

Horregatik guztiagatik, Udalbatzak Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento,

ERABAKIA EMAN DU

HA ACORDADO

Lehenengo. Onestea Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateekin Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko formalizatutako hitzarmenen bederatzi hilabeteko luzapena, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era. Primero. Autorizar la prórroga por un plazo de nueve meses, desde el 1 de enero al 30 de septiembre de 2025, de los convenios formalizados por la Diputación Foral de Gipuzkoa con los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Erabaki honen I. eranskin gisa erantsi da luzapen-gehirriaren eredia. Se adjunta como anexo I al presente acuerdo el modelo de adenda de prórroga.

BIGARRENA. Ahalmena ematea Asteasuko Udalako Alkatetzari hitzarmenaren luzapen-dokumentuak sinatzeko, bai eta beharrezkoak diren gainerako kredituak baimentzeko ere, behin urte bakoitzari dagokion ekitaldiko aurrekontu orokorrak indarrean daudenean. SEGUNDO. Facultar a la Alcaldía del Ayuntamiento de Asteasu para la firma de los documentos de prórroga del convenio así como para autorizar el resto de los créditos necesarios, una vez se encuentren en vigor los presupuestos generales del ejercicio al que correspondan las respectivas anualidades.

I ERANSKINA / ANEXO I

ERANSKINA, ETXEKO LAGUNTZA
ZERBITZUA FINANTZATZEKO
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA
ASTEASUKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENAREN ONDORIO
EKONOMIKOAK ZABALTZEKO ETA
HASIERAKO INDARRALDIARI AMAIERA
EMATEKOA.

Sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

ELKARTU DIRA

Alde batetik,

MAITE PEÑA LÓPEZ Gipuzkoako Foru
Aldundiko Zainketa eta Gizarte Politiketako
foru diputatua eta Aldundiaren ordezkaria,
Diputatuen Kontseiluak 2024ko abenduaren
10ean egindako bileran hartutako erabakiaren
bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

Eta bestetik,

Maria Pilar Legarra Cortajarena, Asteasuko
Udaleko alkate andrea eta ordezkaria, 2024ko
abenduaren 17ko Osoko Bilkurak hartutako
erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz
baimenduta.

AZALTZEN DUTE

I.- Aldeek 2022ko otsailaren 22an sinatu zuten
Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Asteasuko
Udalaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, etxez
etxe laguntza-zerbitzua finantzatzeko.

ADENDA DE EXTENSIÓN DE EFECTOS
ECONÓMICOS Y FINALIZACIÓN DE LA
VIGENCIA INICIAL DEL CONVENIO DE
COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN
FORAL DE GIPUZKOA Y EL
AYUNTAMIENTO DE ASTEASU PARA LA
FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A
DOMICILIO.

En el lugar de la firma electrónica.

REUNIDOS

De una parte,

Doña MAITE PEÑA LÓPEZ en calidad de
Diputada Foral del Departamento de Cuidados
y Políticas Sociales de la Diputación Foral de
Gipuzkoa y en su representación,
expresamente autorizada para este acto por
acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 10
de diciembre de 2024.

Y de otra parte,

Maria Pilar Legarra Cortajarena, en calidad de
alcaldesa del Ayuntamiento de Asteasu y en su
representación, expresamente autorizado/a
para este acto por acuerdo Plenario Municipal
de 17 de diciembre de 2024.

EXPONEN

I.- Que las partes firmaron el 22 de febrero de
2022 el convenio de colaboración entre la
Diputación Foral de Gipuzkoa y el
Ayuntamiento de Asteasu para la financiación
del servicio de ayuda a domicilio.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

II.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulak hitzarmenaren indarraldia ezartzen du, eta adierazten du gehenez lau urtekoa izango dela. Nolanahi ere, hitzarmena sinatu duten alderdiek aho batez eta hura amaitu baino lehen adostu ahal izango dute lau urte gehiagoz luzatzea edo azkentzea.

III.- Hitzarmenaren hamalagarren klausulan xedatutakoaren arabera aldeek hitzarmenaren ondorio ekonomikoak urte natural batez zabaltzea adostu zuten, 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

Kontuan izanda hitzarmenaren hasierako gehieneko iraupena lau urtekoa izango dela, 2025eko irailaren 30ean amaituko da hasierako indarraldia.

Aurrekoa oinarri hartuta, bi alderdiek adostu dute eranskin hau formalizatzea, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Helburua.

Hitzarmenaren ondorio ekonomikoak bederatziz hilabetez zabaltzea erabaki da, 2025eko urtarrilaren 1etik irailaren 30era. Horrela, aurreikusitako lau urteko gehieneko hasierako indarraldia beteko da.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren gainerako zatiek irautea.

Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztian, hitzarmenaren gainerako klausula eta xedapen

II.- Que la cláusula decimocuarta del convenio establece la vigencia del mismo, señalando que no podrá ser superior a cuatro años, sin perjuicio de que las partes firmantes del convenio podrán acordar unánimemente y antes de la finalización de dicho plazo, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

III.- Que en base a lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del convenio las partes acordaron extender los efectos económicos del convenio por un año natural desde el 1 de enero al 31 de diciembre de 2024.

Habida cuenta de que la duración inicial del convenio no podrá ser superior a cuatro años, el plazo de vigencia inicial vence el 30 de septiembre de 2025.

Con base a lo anterior, ambas partes han convenido la formalización de la presente adenda de acuerdo con las siguientes

CLÁUSULAS

PRIMERA.- Objeto.

Se acuerda extender por nueve meses los efectos económicos del convenio, desde el 1 de enero hasta el 30 de septiembre de 2025. Así, se cumplen los cuatro años de vigencia máxima inicial prevista.

SEGUNDA.- Subsistencia del resto del convenio.

En todo lo no previsto en el presente documento seguirán plenamente vigentes y

SINA94b6ccb6f-210f-44d7-94aa-668a53bec18e

guztiak indarrean eta aplikagarri jarraituko dute, eta horiek ere aplikatuko dira dokumentu honi beharrezkoa zaion guztian.

aplicables todas las demás cláusulas y disposiciones del convenio, siendo las mismas igualmente de aplicación en cuanto fuere necesario al presente documento.

Eta aurreko guztiarekin ados daudela erakusteko, dokumentu hau elektronikoki sinatzen dute, sinadura elektronikoaren tokian eta egunean.

Y en prueba de conformidad con cuanto antecede, se firma electrónicamente el presente documento, en el lugar y fecha de la firma electrónica.

ASTEASUKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MARIA PILAR LEGARRA CORTAJARENA

MAITE PEÑA LÓPEZ

SEIGARREN PUNTUA

Mozioak:

- **2024/09: Euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioa.**

2024/12/12an aurkeztutako idazkiaren bidez (sarrera zbakia: 1188) ASTEASU BATUZ UDAL TALDEA-k eskaera aurkeztu du, Asteasuko Udalaren osoko bilkuran mozio bat onartzeko.

Hau da mozioa:

**EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN
ALDEKO MANIFESTAZIOA**

**MANIFESTACIÓN POR LOS
DERECHOS DE LOS PRESOS Y
PRESAS VASCAS**

2024KO ABENDUAK
18:30

VILLABONAKO ERREBOTEKO
PLAZATIK ZIZURKILGO JOXE ARREGI
PLAZARA

31 DE DICIEMBRE DE 2024
18:30

DESDE LA ERREBOTEKO PLAZA DE
VILLABONA, HASTA LA PLAZA JOXE
ARREGI DE ZIZURKIL



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Urtearen amaierarekin batera iritsi zaizkigu gabonak, egun bereziak, lagun eta familia giroan urtean pasatakoak gogoratu eta jai giroan ospatzeko erabiltzen ditugunak. Gabonetan badira hala ere momentu tristeak, ondoan falta ditugunak gogoratzeko momentuak ere badira eta, biolentzia ezberdinen eraginez gure ondotik joanak, edo espetxean lau hormen artean edo erbestean daudenez gogoratzeko egunak.

ETAk bere jardura amaitutzat eman zuela 13 urtetara oraindik ere, 124 euskal preso daude espetxean, 20 euskal herritar inguru iheslari eta deportatu artean. 13 urte ondoren salbuespen legeek indarrean jarraitzen dute, estrategia antiterroristapean bideratutako legeak, orduan ere euskal presoak modu bidegabea zigortu bazituen ere, are ageriago ikustan da lege horiek egun suposatzen duten salbuespena.

Euskal Herrian bizitutako gatazkak utzitako ondorioekin amaitzea premiazkoa da euskal herritarrontzat, behar bat da sufrimenduak gehiago ez luzatzea. Salbuespen lege batekin amaitzea lortu badugu ere, oraindik indarrean jarraitzen du salbuespen auzitegi den entzutegi nazionalak, edo bizi osorako espetxe zigorra ordezkatzeko sortu zen 07/2003 legeak.

Euskal gizarte osoaren ardurak da, etorkizunera begira jarri eta salbuespenekin amaitzea, gatazkaren konponbideari aterabide integral bat eskaintzeko lanean aritzea.

Con el fin de este 2024 nos llegan las navidades, esos días especiales, en los que en ambiente festivo, empleamos para recordar los sucesos acontecidos, en entorno familiar y de amistades. No obstante, no podemos negar que existen también momentos de tristeza, en los que nos acordamos de quienes no pueden estar a nuestro lado, quienes no están a consecuencia de las diferentes violencias o quienes tienen que estar encerrados entre cuatro paredes o en el exilio.

13 años después de que ETA diera por finalizada su actividad, 124 presos vascos permanecen aún en prisión y aproximadamente 20 ciudadanos vascos en el exilio o la deportación. 13 años después, todavía siguen vigentes las leyes de excepción, leyes implementadas bajo la estrategia antiterrorista. Si la aplicación de estas, era absolutamente injusta y desproporcionada entonces, que podemos decir de su aplicación ahora, a las puertas de 2025.

Acabar con las consecuencias que ha dejado el conflicto vivido en Euskal Herria es urgente para la ciudadanía vasca, es una necesidad no prolongar más los diferentes sufrimientos. Aunque hemos conseguido acabar con una ley de excepción, todavía sigue vigente la propia Audiencia Nacional, un tribunal de excepción, o la ley 07/2003 que fue creada para aplicar "de facto" una cadena perpetua a presos y presas vascas.

Es responsabilidad de la sociedad vasca en general, acabar con la excepcionalidad y con el sufrimiento. Y así mismo trabajar para ofrecer una salida integral a la resolución del conflicto y mirar al futuro.

Hori guztiagatik Aiztondo bailarako Aduna, Alkiza, Asteasu, Zizurkil eta Amasa-Villabonako Udalek euskal preso, iheslari eta deportatuek etxerako bidea urratu dezaten aterabide integral bat beharrezkoa dela adierazten dute, urteko azken egun honetan. Era berean biolentzia ezberdinen biktimak aitortuak izateko eta egia jakiteko eskubide osoa dutela aldarrikatzen dute.

Finean, Aiztondoko Udaletako alkate eta zinegotziok, Euskal Herriak horrenbeste behar ea merezi duen etorkizunari eta elkarbizitzari begira jartzeko garaia dela aldarrikatu nahi dugu.

Behin betiko bakea, konponbidea, elkarbizitza. Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxera!

Por todo ello, en este último día del año los Ayuntamientos del valle de Aiztondo, Aduna, Alkiza, Asteasu, Zizurkil y Amasa-Villabona, manifiestan la necesidad de una salida integral para que los presos, huidos y deportados vascos emprendan el camino a casa. Asimismo, reivindican que las víctimas de diferentes violencias tienen todo el derecho a ser reconocidas y a saber la verdad.

En definitiva, los alcaldes y concejales de los Ayuntamientos de Aiztondo queremos reivindicar que es hora de mirar al futuro y a la convivencia que tanto necesita y merece Euskal Herria.

Por una paz, solución y convivencia definitivas. Euskal preso, iheslari eta deportatuak etxera!

Proposamena bozketara jarri da, ondorengo emaitza eman delarik:

Aldeko botuak: (Legarra, Alkorta, Izagirre, Agirre, Omeñaca, Egaña)

Kontrako botuak: 0

Abstentzioak: 0

Gauzak horrela, Udalbatzak

HAU ERABAKI DU

Lehena. Jasotako adierazpena onartzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri ematea interesdunei.

ZAZPIGARREN PUNTUA

Erregu eta galderak.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Alkate andreak hitza hartu du. Abenduaren 3an Euskararen Eguna izan zen. Asteasuko Udaleko bi Udal Taldeek bi mozio hitzartu zituzten. Une honetan, ikusirik jada denbora igarota dagoela, aipatu du ez duela pena merezi aipatu mozioak onartzea Udalbatzar honetan. Dena den, proposatu du aipatu bi mozioak bilkura honen aktan txertatzea.

Batzordekideek bere adostasuna adierazi dute.

Hauk dira aipatu testuak:

ADIERAZPENA

ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA, OLATU BERRIA SORTZEKO

Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela entzuten hasiak garela. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta guneak ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula.

Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbestekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, besteak beste, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak. Dugun errealitatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aurrerantz egiten ez badugu atzerantz egingo dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatiboz bizi daitekeen guneetan. Gainera, gune horiek ahultzen ari zaizkigu. Horrenbestez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi nahi dugu.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horri guztiari aurre egiteko, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnaguneek eta udalerrri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guztiak behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak,

hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatzeko eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izango dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izango da Udala ere.

ADIERAZPENA:

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2024. MANIFESTUA

Euskararen ehuntze-komunitatea

Etenik gabe ekinean dabilen
euskararen eragile nagusia

Bat, eta bat, eta bat, eta beste bat... bi, gehi beste bat...gehiketa da gaigintza, txirikordan dabilzan harien ehuna sortzen dugun bat eta bakar kolektiboak. Gaigintza da gehiketa kolektibo txirikordatua. Ehungintzaren artea. Ehundarron mugimendua. Ari eta ari, hariak gurutzatuz bidegurutzeetan. Ebakidura eta loturak hari fin edo lodien artean. Gorri, urdin edo zuriak... bat eta bakoitza bere-berea elkarri begira. Korapiloak, elkargune. Bakoitza norbera, nortasun bat eta bakar. Hari sendo eta ahul. Hari zahar edo berri. Ez deusa bakarrik, eta osoa, batera. Ehun! Guztion artean ehuna!

Ehundegi bat gara, bakartasunak batuz, gurutzatu eta korapilatuz gabiltzan hari luze-laburren ehungile artisauak. Ixte zein irekitze. Korapilo, lotura eta askatzeak. Eskuaren tenkatze eta lasaialdiaren mugimendua gara. Euskararen ehundegia. Garen geroaren ehundegia.

Zaharra da euskararen ehundegia. Hariz hari, hariak eta hariak batuz ekinean aritu izan garen herritar eta euskaltzaleak iragana bezainbat gara oraina. Euskara dugunak bezainbat oraindik ez dutenak. Euskararen aldeotasunak hizkuntza ezberdinak ditu, hiztun mota ezberdinak gara, eta guztiok osatzen dugu euskararen ehuna. Mugimenduan gabiltzanon ehuna.

Euskararen aldeko ekinek ehunka egun eta urtetan iraun dute geldialdirik gabe bidegile eta bidelagun ekintzaileei esker. Euskararen hurrengotaratzearen katebegigileak izan dira. Ezinbestean, euskarak bidegileak behar izan dituelako. Bidelagun nekaezinak, kolektiboak. Ekintza eta taldetasuna osatu duten euskaltzaleak. Ametsa, jolasa eta saretzea egia bihurtu duten talde zein mugimendu eragileak gara ehundegi honetako protagonista nagusiak.



ASTEASUKO UDALA
(GIPUZKOA)

Bat, eta bat... eta beste bat... bi eta bi, eta beste bat. Baina bi edo bat, eta bat. Agian, beste bat. Edo, agian, bat eta erdi bat. Halere, euskarari emanak garen kolektiboaren marrakia irteten den ehunean, ekina ahultzen ari da. Harien tenkatze eta lasatzea, mugimendua bakantzen sumatzen dugu mundu globalaren erritmoetan. Ezina. Ekinari eutsi eta eman ezina. Korapilo haundi samar bat ehunean kateatuta. Tenkatze lan minbera sortzen duena eskuetan. Multzoaren uztearen ondoriozko hustea. Hutsunea ageri da ehunean. Marrazkiaren zulo txikia. Gizartearen ardura kolektiboa besterentzen ari den unean, taldetasuna eta ekintzailtza gero eta urrunago suertatzen ari zaizkigu, eta ehunean bada zulo bat, bete ezin duguna. Eskua ekinera iristen ez den ez-leku hori agertzen da gure begietan.

Bai. Agertzen da hutsarte euskararen ehunean. Eta gabiltza ekinean hari-gurutzeak osatuz, korapiloak handitu eta lasaituz. Kolorez kolore. Ehundura osatuz. Ilaraz ilara, elkar gurutzatuz. Elkar sendotuz. Euskararen ehun zulatua eder bilakatuz, gertu zein urrutiko begiratuan. Zuloa, hari etena eta nahastura ere bagarelako. Euskararen ehundegian, baina, ekina da jarraipena. Ekina da artez bizirautea. Mugimendu soziala. Erakunde publiko, elkarte, langile eta etxeokak. Euskararen aldeko mugimendua gara. Euskarari emanak eta euskarari esker ekinean nor izan nahi dugunak. Euskararen ehundegia gara. Garen geroaren ehungailu etengabeak.

Euskararen egunean, ehungile garen erakunde publikoei eta gizarte eragileei eupada handi bat zor diegu. Geldialdiarik gabeko bidea da euskararen indarberritzearen bizitza, eta ekinean gabiltzanon ardura elkarren aitortza eginez, gure erronka berriei erantzuteko baldintza berriak sortzea.

Euskararen ehuntze ariketa guztion ardura da. Erakunde publikoona eta gizarte eragileona. Ekina ezinbestekoa da. Euskarak mugimendua behar du, bere-berea duen bizia mantendu eta geroz eta biziagoa izateko; euskararen distirak aniztasunetik guztiok ziprztindu gaitzan.

Euskara guztiona da. Hemen gauden eta etorriko diren guztiona. Irabaz dezagun elkarrekin euskararen bidea.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:55 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Bitarteko Idazkariak.

Asteasun, 2024ko abenduaren 17an.

Bitarteko Idazkariak

Jon Gil Beltza



EKS | CSV: **SINA94b6ccbf-210f-44d7-94aa-668a53bec18e**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01410>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Udalbatzarreko akta 2024.12.17

CSV/EKS:

SINA94b6ccbf-210f-44d7-94aa-668a53bec18e